



URTEKO LABURPENA


2023. urtearen ezaugarri nagusia inflazioaren aurkako borroka izan da. Izan ere, pandemiaren ostean eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra hasi ondoren sortutako inflazioari egin behar izan dio aurre euroguneko ekonomiak. Europako Banku Zentralak 10 aldiz igo behar izan ditu interes-tasak 2022az geroztik —6 aldiz 2023an—, eta % 4raino eraman du gordailu-eraztasunaren tasa. Horren ondorioz, prezioen hazkunde-tasak zuzenketa handia izan du urtean zehar, eta 2023ko urtarrilean azpiko inflazioak zuen % 7,1eko urteko tasatik % 3,9ra jaitsi da 2023ko abenduan. Diru-politika murriztaileak euroguneko ekonomia-jardueran ere izan du eragina, barne-produktu gordinaren hiruhilekoko batez besteko hazkunde-tasak ia nuluak izateraino. Horrenbestez, ia atzeraldi teknikoan amaitu da urtea. Azpimarratzekoa da industria-sektorearen portaera apala, bai maila globalean, bai, zehazki, eurogunean. Adibidez, manufaktura-sektoreko erosketa-kudeatzaileen indizea edo manufaktura-sektoreko PMIa uzkuertze-eremuan (50etik behera) dago 2022ko uztaiaz geroztik. Bi dira industria-sektorearen apaltasunaren arrazoiak: batetik, gerra hasi ondoren sortutako energia-krisia eta, bestetik, hornidura-katearen arazoak. Gauzak horrela, sektoreak erronka garrantzitsuei egin beharko die aurre epe laburrera eta ertainera.

Gure erreferentziako eremu geografikoetan, ordea, ekonomiaren dinamismoa eurogunekoa baino askoz handiagoa izan da, eta hala erakusten dute jarraian labur-labur azalduko ditugun adierazle nagusiek:

- 2023an, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-produktu gordinak % 1,8 egin du gora. Nafarroako Foru Erkidegoan ere antzeko portaera izan du, % 1,9 hazi baita. Estatuan, berriz, nabarmen handiagoa izan da barne-produktu gordinaren hazkundera: % 2,5ekoa, hain zuzen.
- Lan-merkatuko magnitude nagusiek 2023an izandako bilakaera bat dator aipatutako barne-produktu gordinaren datuekin: enpleguaren hazkunde-tasa % 2,9koa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan, % 1,1ekoa Nafarroan eta % 3,1ekoa Estatuan.
- Era berean, eraginik handiena duen magnitudea, langabezia-tasa, % 7,7koa izan da EAEn —2022koa baino portzentajezko 1,2 puntu txikiagoa—. Nafarroako Foru Erkidegoan, berriz, % 9,9koa izan da langabezia-tasa, 2 hamarren igo ondoren, eta Espainian, % 12,2koa, 2022koa baino 8 hamarren txikiagoa.
- Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztietako balio erantsi gordinaren hazkundera positiboa izan da aztertutako hiru eremu geografikoetan; Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko lehen sektorea da salbuespen bakarra.
- Prezioetan, urteko batez besteko hazkunde-tasa % 3,1ekoa izan da abenduan EAEn, % 2,9koa Nafarroako Foru Erkidegoan eta % 3,1ekoa Estatuan. Dena den, bada aipatu beharreko datu bat: urtetik urterako zifraren atzean inflazioak urtean zehar izan duen beheranzko joera ezkututzen da. Hala, Estatuan, % 6 inguruko urteko tasekin hasi da urtea, eta % 3,1eko urtetik urterako tasarekin amaitu.

BPG-aren bilakaera (%)	2021	2022	2023
Estatu Batuak	5,8	1,9	2,5
Japonia	2,6	1,0	1,9
Alemania	3,1	1,9	-0,1
Frantzia	6,4	2,5	0,9
Italia	8,3	4,1	1,0
Erresuma Batua	8,7	4,3	0,1
Kanada	5,3	3,8	1,1
Eurogunea	5,8	3,5	0,5
ELGA GUZTIRA	6,0	3,0	1,7

Iturria: ELGA. Aurreikuspen ekonomikoak, 2024ko maitza.



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

BPG-aren bilakaera sektoreka (%)		2021	2022	2023
EAE	• Nekazaritza	15,1	-8,7	-3,0
	• Industria	5,3	4,7	0,3
	• Eraikuntza	1,0	6,7	2,1
	• Zerbitzuak	6,6	5,9	2,4
	Guztira	6,0	5,4	1,8
Nafarroa	• Nekazaritza	2,1	2,3	3,4
	• Industria	6,5	3,5	0,4
	• Eraikuntza	4,3	4,3	0,9
	• Zerbitzuak	6,1	5,2	2,6
	Guztira	5,9	4,3	1,9
Estatua	• Nekazaritza	4,2	-19,8	-1,9
	• Industria	5,4	2,6	1,8
	• Eraikuntza	-1,0	3,2	2,3
	• Zerbitzuak	6,8	8,0	3,2
	Guztira	6,4	5,8	2,5

Iturria: EIN, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Enpleguaren bilakaera sektoreka (milaka pertsona)					
		Lehen Sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	2022	10,4	199,2	53,6	704,1
	2023	▲ 10,8	▲ 200,0	▲ 56,7	▲ 728,3
Nafarroa	2022	8,2	76,1	20,7	190,5
	2023	▲ 10,3	▼ 74,9	▼ 17,2	▲ 196,4
Estatua	2022	798,5	2.779,1	1.355,0	15.614,9
	2023	▼ 767,3	▲ 2.814,5	▲ 1.398,0	▲ 16.202,4

Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2021ko biztanleria-oinarria).

NAZIOARTEKO HAZKUNDEA

2023an ere munduko ekonomiari moteldu egin zaio hedapen-erritmoa, nazioarteko tentsio geopolitiko handien ondorioz. Hala, % 3,2koa izan da hazkunde-tasa (% 6,5koa izan zen 2021ean eta % 3,5koa 2022an).

Kontuan hartu behar da, gainera, ziurgabetasunak oso handia izaten jarraitzen duela gaur egun, besteak beste arrazoi hauek tarteko: gatazka belikoak, tentsio geopolitikoak, inflazioaren bilakaera eta interes-tasak.

HAZKUNDEA

Estatua

Dinamismo ekonomiko txikiagoko nazioarteko testuinguru honetan, Estatuko barne produktu gordinaren hazkundea % 2,5era mugatu da 2023an — oso tasa apala aurreko bi ekitaldietako % 6 ingurukoekin alderatuta—. Hiruhileko batetik bestera, profilak dezelerazio argia erakusten du, nahiz eta ekitaldiaren azken hiruhilekoan igoera txiki bat izan.

Hala eta guztiz ere, Estatuko lan-merkatuak bilakaera positiboa izan du 2023an, eta biztanleria okupatuak % 3,1 egin du gora.

BILAKAERA SEKTORIALA

EAE, Nafarroa eta Estatu

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiari ere aurreko ekitaldian baino indar txikiagoa antzeman zaio, eta % 1,8ko hazkunde-tasa izan du 2023an (% 5,4koa 2022an). Lehen sektorea izan da jarduera-maila murriztu zaion bakarra.

Estatu osoarekin alderatuta, sektore guztiek izan dute bilakaera okerragoa Euskal Autonomia Erkidegoan (lehen sektoreak atzeraldi handiagoa izan du, eta gainerako sektoreek dinamismo txikiagoa).


LAN-MERKATUA

EAE, Nafarroa eta Estatu

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa 2022ko % 8,9tik 2023ko % 7,7ra jaitsi da, eta biztanleria okupatuak gora egin du, 995,7 mila pertsonaraino.

Estatuan, berriz, langabezia-tasa 2022ko % 13tik 2023ko % 12,2ra jaitsi da.


Euskal ekonomiak urtetik urterako % 1,8ko hazkundera lortu du barne-produktu gordinean 2023an. Hiruhilekoko profilari begira, hazkundera lauagoa izan da ekitaldiaren bigarren erdialdean (urtetik urterako hazkunde-tasak % 2,4, % 1,5, % 1,7 eta % 1,7 izan dira, hurrenez hurren, lau hiruhilekoetan).



Oharra: Bolumen-indize kateatua; urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
Iturria: Hiruhilerako Kontu Ekonomikoak. Eustat.


Dinamismo sektorialaren indizeek berretsi egiten dituzte emaitza horiek, baina profilak desberdinak dira sektore batetik bestera: industria-jarduerak dezeleraziorako joera izan du urtearen lehen zatian, baina onera egin du ekitaldiaren amaieran; eraikuntzak aldakuntza-tasarik eta hegakortasunik handienak izan ditu, eta zerbitzuetako bi osagaiak portaera lauagoak izan dituzte — suspertzeko joera izan dute merkatuko bestelako zerbitzuek, eta, txikizkako merkataritzan, jardueraren dezelerazioa izan da nagusi

Sektoreko adierazle nagusien bilakera. EAE



Oharra: Industria Ekoizpenaren Indizea, Eraikuntzaren Koiunturako Indizea, Merkatuko Beste Zerbitzuen Indizea eta Txikizkako Merkataritzaren Indizea zerbitzuzunerik gabe (biak, prezio konstanteetan).
Iturria: Eustat.


Afiliazioaren hileko bilakaeran, iraunkortasuna da nagusi Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Estatuko enplegu-hazkunderan. Bilakaera hori urrun dago 2022ko gorakadatik, ekitaldi horretan apartekoak izan baitziren enpleguaren urtetik urterako hazkunde-tasak —2021eko datuekin alderatuta kalkulatu ziren, hau da, jarduera suspertzen ari zeneko urtearekin—, pandemiaren osteko susperraldiaren ondorioz.



Iturria: Gizarte Segurantzza.

Aitzitik, kontratazioaren hileko bilakaerak agerian uzten du arau-aldaketak eragindako doikuntza. Urtetik urterako aldakuntza-tasak oraindik negatiboak badira ere, poliki-poliki arintzen ari da kontratazioan izandako atzerakada. Gertaera hori bat dator modalitate mugagabearen garrantziarekin, urteko kontratazioaren % 25ekoa baita gutxienez; hortaz, enpleguaren oinarria finkatu egin da, eta kontratu potentzialak murriztu egin dira (etorkizunera begira).

Erregistratutako kontratu berrien bilakera




Iturria: SEPE.

Gauzak horrela, konfiantzari dagokionez, euskal familiek zuhurtzari eutsi diote, eta nolabaiteko ezkortasuna ageri da. Hala erakusten dute kontsumitzailearen konfiantza-indizearen emaitzek, balio negatiboetan jarraitzen baitute. Urrun daude, hala ere, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako emaitzetatik (-22koa eta -23koa, hurrenez hurren), inflazioaren gorakadaren ondorioz hondoa jo baitzuen konfiantza-indizeak.

Hala, urteko batez besteko emaitzak hobera egin du (-11koa izan zen 2022an eta -9koa 2023an). Hauek dira indizerik ezkorrenak: ekonomia orokorraren egoerari buruzko 12 hilerako aurreikuspenak (-21) eta etxeko ekonomiaren egoerari buruzkoak (-12). Ez dira hain txarrak edo ia positiboak dira, berriz, langabeziaren bilakaerari buruzkoak (-4) eta familiek aurrezteko duten gaitasunari buruzkoak (-2).


Familien konfiantza-indizea. EAE




Oharra: Lortutako emaitzak honela interpretatu dira: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.
Iturria: Laboral Kutxa.

2024RAKO AURREIKUSPENAK


BPG 2024




Enplegua 2024



Prezioak (KPI) 2024



Langabezia-tasa 2024



Iturria: Laboral Kutxa.

Esan bezala, euroguneko ekonomia ia geldialdian zegoen 2023aren amaieran. Hala ere, 2024 honetarako aurreikuspenak nahiko baikorrak ziren, eta, urtearen hasieran hazkunde-tasa txikiak espero baziren ere, urtearen bigarren erdialderako tasa handiagoak aurreikusten ziren. Ekonomiaren barne-indarra zen aurreikuspen baikorren oinarria; zehazki, zerbitzu-sektore sendoa, langabezia-tasa minimoetan zuen lan-merkatua eta inflazioaren gaintik igotzen hasiak ziren soldatak, familien kontsumoaren portaera ona iragartzen zutenak. Errealitateak ustekabe positiboa ekarri du, ordea: 2024ko lehen hiruhilekoan aurrekoaren aldean izandako % 0,3ko hazkundera esperotakoa baino hobea izan da; areago, industria-sektorean ere antzeman da hobekuntza, eta horrek sendotu egin ditu hazkunde-aurreikuspenak.

Gure erreferentziako eremuei dagokienez, are nabarmenagoa izan da hobekuntza, % 0,5 eta % 1 bitarteko hazkunde-tasak izan baitira lehen hiruhilekoan hiru eremu geografikoetan. Ekonomiaren susperraldi zikliko horrek aukera emango digu joan den abenduan egindako estimazioak gorantz zuzentzeko. Bestalde, Europako Banku Zentralak inflazioa kudeatzeko etapa berriari ekin zion joan den ekainean, interes-tasak % 0,25 jaitsita. Lehen jaitsiera hori seinale bat besterik ez bada ere, urtearen bigarren erdialderako espero diren beste bi jaitsierek eta 2025erako aurreikusten diren laurek nolabaiteko bultzada emango diote hazkunderari, eta datorren urtean antzemango da batez ere.

Eta horixe da, funtsean, 2024rako aurreikusten dugun egoera. Zehazki, txosten hau amaitzean dugun informazioa kontuan hartuta, % 2,4ko hazkunde-tasa espero dugu Estatu osorako, % 2koa Euskal Autonomia Erkidegorako eta % 2,1ekoa Nafarroako Foru Erkidegorako. Datu horiek nabarmen egin dute gora pasa den abenduan eman genituenekin alderatuta.

Nolanahi ere, esan beharra dago inflazioaren aurkako borroka ezin dugula inola ere amaitutzat eman oraindik, nahiz eta beheranzko bide luzea egin dugun dagoeneko. Euroguneko urtetik urterako indize harmonizatua % 2,6koa izan da maiatzean, eta azpiko inflazioa, % 2,9koa. Datu horiek ikusita, luze joko du, itxuraz, Europako Banku Zentralak lortu nahi duen % 2ko helburua erdiesteak. Hori dela eta, Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak arretaz jarraituko dio soldaten bilakaerari, euroguneko ekonomiaren barne-indarra ikusita, eta unean uneko datuetan oinarrituko ditu erabakiak.



URTEKO LABURPENA


2023. urtearen ezaugarri nagusia inflazioaren aurkako borroka izan da. Izan ere, pandemiaren ostean eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra hasi ondoren sortutako inflazioari egin behar izan dio aurre euroguneko ekonomiak. Europako Banku Zentralak 10 aldiz igo behar izan ditu interes-tasak 2022az geroztik —6 aldiz 2023an—, eta % 4raino eraman du gordailu-eraztasunaren tasa. Horren ondorioz, prezioen hazkunde-tasak zuzenketa handia izan du urtean zehar, eta 2023ko urtarrilean azpiko inflazioak zuen % 7,1eko urteko tasatik % 3,9ra jaitsi da 2023ko abenduan. Diru-politika murriztaileak euroguneko ekonomia-jardueran ere izan du eragina, barne-produktu gordinaren hiruhilekoko batez besteko hazkunde-tasak ia nuluak izateraino. Horrenbestez, ia atzeraldi teknikoan amaitu da urtea. Azpimarratzekoa da industria-sektorearen portaera apala, bai maila globalean, bai, zehazki, eurogunean. Adibidez, manufaktura-sektoreko erosketa-kudeatzaileen indizea edo manufaktura-sektoreko PMIa uzkuertze-eremuan (50etik behera) dago 2022ko uztaiaz geroztik. Bi dira industria-sektorearen apaltasunaren arrazoiak: batetik, gerra hasi ondoren sortutako energia-krisia eta, bestetik, hornidura-katearen arazoak. Gauzak horrela, sektoreak erronka garrantzitsuei egin beharko die aurre epe laburrera eta ertainera.

Gure erreferentziako eremu geografikoetan, ordea, ekonomiaren dinamismoa eurogunekoa baino askoz handiagoa izan da, eta hala erakusten dute jarraian labor-labor azalduko ditugun adierazle nagusiek:

- 2023an, Nafarroako Foru Erkidegoan barne-produktu gordinak % 1,9 egin du gora. Estatuan, berriz, nabarmen handiagoa izan da barne-produktu gordinaren hazkundera: % 2,5koa, hain zuzen.
- Lan-merkatuko magnitude nagusiek 2023an izandako bilakaera bat dator aipatutako barne-produktu gordinaren datuekin: enpleguaren hazkunde-tasa % 1,1eko izan da Nafarroako Foru Erkidegoan eta % 3,1eko Estatuan.
- Era berean, eraginik handiena duen magnitudea, langabezia-tasa, % 9,9koa izan da Nafarroako Foru Erkidegoan —2022koa baino 2 hamarren handiagoa—, eta Espainian, % 12,2koa, 2022koa baino 8 hamarren txikiagoa.
- Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztietako balio erantsi gordinaren hazkundera positiboa izan da aztertutako bi eremu geografikoetan; Estatuko lehen sektorea da salbuespen bakarra.
- Prezioetan, urteko batez besteko hazkunde-tasa % 2,9koa izan da abenduan Nafarroako Foru Erkidegoan eta % 3,1eko Estatuan. Dena den, bada aipatu beharreko datu bat: urtetik urterako zifraren atzean inflazioak urtean zehar izan duen beheranzko joera ezkututzen da. Hala, Estatuan, % 6 inguruko urteko tasekin hasi da urtea, eta % 3,1eko urtetik urterako tasarekin amaitu.

BPG-aren bilakera (%)	2021	2022	2023
Estatu Batuak	5,8	1,9	2,5
Japonia	2,6	1,0	1,9
Alemania	3,1	1,9	-0,1
Frantzia	6,4	2,5	0,9
Italia	8,3	4,1	1,0
Erresuma Batua	8,7	4,3	0,1
Kanada	5,3	3,8	1,1
Eurogunea	5,8	3,5	0,5
ELGA guztira	6,0	3,0	1,7

Iturria: ELGA. Aurreikuspen ekonomikoak, 2024ko maiatza.



Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN.

BPG-aren bilakera sektoreka (%)		2021	2022	2023
Nafarroa	• Nekazaritza	2,1	2,3	3,4
	• Industria	6,5	3,5	0,4
	• Eraikuntza	4,3	4,3	0,9
	• Zerbitzuak	6,1	5,2	2,6
	Guztira	5,9	4,3	1,9
Estatua	• Nekazaritza	4,2	-19,8	-1,9
	• Industria	5,4	2,6	1,8
	• Eraikuntza	-1,0	3,2	2,3
	• Zerbitzuak	6,8	8,0	3,2
	Guztira	6,4	5,8	2,5

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN.

Enpleguaren bilakera sektoreka (milaka pertsona)					
		Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Nafarroa	2022	8,2	76,1	20,7	190,5
	2023	▲ 10,3	▼ 74,9	▼ 17,2	▲ 196,4
Estatua	2022	798,5	2.779,1	1.355,0	15.614,9
	2023	▼ 767,3	▲ 2.814,5	▲ 1.398,0	▲ 16.202,4

Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2021ko biztanleria-oinarria).

NAZIOARTEKO HAZKUNDEA

2023an ere munduko ekonomiari moteldu egin zaio hedapen-erritmoa, nazioarteko tentsio geopolitiko handien ondorioz. Hala, % 3,2koa izan da hazkunde-tasa (% 6,5koa izan zen 2021ean eta % 3,5koa 2022an).

Kontuan hartu behar da, gainera, ziurgabetasunak oso handia izaten jarraitzen duela gaur egun, besteak beste arrazoi hauek tarteko: gatazka belikoak, tentsio geopolitikoak, inflazioaren bilakaera eta interes-tasak.

HAZKUNDEA

Estatua

Dinamismo ekonomiko txikiagoko nazioarteko testuinguru honetan, Estatuko barne produktu gordinaren hazkundea % 2,5era mugatu da 2023an — oso tasa apala aurreko bi ekitaldietako % 6 ingurukoekin alderatuta—. Hiruhileko batetik bestera, profilak dezelerazio argia erakusten du, nahiz eta ekitaldiaren azken hiruhilekoan igoera txiki bat izan.

Hala eta guztiz ere, Estatuko lan-merkatuak bilakaera positiboa izan du 2023an, eta biztanleria okupatuak % 3,1 egin du gora.

BILAKAERA SEKTORIALA

Nafarroa y Estatuak

Nafarroako ekonomiaren indarra ere moteldu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta % 1,9ko hazkunde-tasa izan du 2023an (% 4,3koa 2022an). Sektore guztietan handitu da jarduera-maila.

Estatu osoarekin alderatuta, lehen sektoreak ez beste guztiek izan dute bilakaera okerragoa Foru Erkidegoan (dinamismo txikiagoa).


LAN-MERKATUA

Nafarroa y Estatuak

Gauzak horrela, Nafarroako langabezia-tasa 2022ko % 9,7tik 2023ko % 9,9ra igo da, eta biztanleria okupatua 298,8 mila pertsonakoa izatera heldu da.

Estatuan, berriz, langabezia-tasa 2022ko % 13tik 2023ko % 12,2ra jaitsi da.

Nafarroako ekonomiak urtetik urterako % 1,9ko hazkundea lortu du barne-produktu gordinean 2023an. Hiruhilekoko profilari begira, dezelerazioa izan du argi eta garbi (urtetik urterako hazkunde-tasak % 2,4, % 2, % 1,7 eta % 1,5 izan dira, hurrenez hurren, lau hiruhilekoetan).




Oharra: Bolumen-indize kateatua; urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
Iturria: Hiruhilerako Kontu Ekonomikoak. Nafarroako Estatistika Institutua.

Dinamismo sektorialaren indizeak bat datoz emandako emaitzekin, baina desberdinak dira sektore batetik bestera: industria-jarduerak atzera egin du zertxobait, eta zerbitzuek hobera, bai merkatuko bestelako zerbitzuen adarrean, bai txikizkako merkataritzaren adarrean. Dena dela, txikizkako merkataritzaren hazkundea lautu egin da, eta prezioak iraunkortu.


Sektoreko adierazle nagusien bilakera. Nafarroa

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Nota: Industria Ekoizpenaren Indizea (jatorrizko seriea), Txikizkako Merkataritzaren Indizea zerbitzuegune gabe (urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta) eta Zerbitzuen Sektoreko Indizea (jatorrizko seriea).
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Afiliazioaren hileko bilakaerak agerian jartzen du enpleguaren hazkundearen profil iraunkorra, bai Nafarroan eta bai Estatuan. Bilakera hori urrun dago 2022ko gorakadatik, ordea, ekitaldi horretan apartekoak izan baitziren enpleguaren urtetik urterako hazkunde-tasak —2021eko datuekin alderatuta kalkulatu ziren, hau da, jarduera suspertzen ari zeneko urtearekin—, pandemiaren osteko susperraldiaren ondorioz.




Iturria: Gizarte Segurantzza.

Aitzitik, kontratazioaren hileko bilakaerak agerian uzten du arau-aldaketak eragindako doikuntza. Urtetik urterako aldakuntza-tasak oraindik negatiboak badira ere, poliki-poliki arintzen ari da kontratazioan izandako atzerakada. Gertaera hori bat dator modalitate mugagabearen garrantziarekin, urteko kontratazioaren % 25ekoa baita gutxienez; hortaz, enpleguaren oinarria finkatu egin da, eta kontratu potentzialak murriztu egin dira (etorkizunera begira).

Erregistratutako kontratu berrien bilakera

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: SEPE.

Gauzak horrela, Nafarroako familiak arduraz ari dira jokatzeko, eta nolabaiteko ezkortasuna nabaritzen da. Hala erakusten dute kontsumitzailearen konfiantza-indizearen emaitzek, balio negatiboetan jarraitzen baitute. Urrun daude, hala ere, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako emaitzetatik (-33koa eta -31koa, hurrenez hurren), inflazioaren gorakadaren ondorioz hondoa jo baitzuten konfiantza-indizeak.

Hala, urteko batez besteko emaitzak hobera egin du (-26koa izan zen 2022an eta -22koa 2023an). Indizerik ezkorrena ekonomia-jarduerari buruzko 12 hilerako aurreikuspeni dagokiena da (-30); ia positiboa da, berriz, langabeziaren bilakaerari buruzko pertzepzioa (-7).

Familien konfiantza-indizea.

Nafarroa


(Hiruhileko bilakaeraren indizea)




Oharra: Lortutako emaitzak honela interpretatu dira: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

2024RAKO AURREIKUSPENAK

BPG 2024




Enplegua 2024



Prezioak (KPI) 2024



Langabezia-tasa 2024



Iturria: Laboral Kutxa.

Esan bezala, euroguneko ekonomia ia geldialdian zegoen 2023aren amaieran. Hala ere, 2024 honetarako aurreikuspenak nahiko baikorrak ziren, eta, urtearen hasieran hazkunde-tasa txikiak espero baziren ere, urtearen bigarren erdialderako tasa handiagoak aurreikusten ziren. Ekonomiaren barne-indarra zen aurreikuspen baikorren oinarria; zehazki, zerbitzu-sektore sendoa, langabezia-tasa minimoetan zuen lan-merkatua eta inflazioaren gaintetik igotzen hasiak ziren soldatak, familien kontsumoaren portaera ona iragartzen zutenak. Errealitateak ustekabe positiboa ekarri du, ordea: 2024ko lehen hiruhilekoan aurrekoaren aldean izandako % 0,3ko hazkundera esperotakoa baino hobea izan da; areago, industria-sektorean ere antzeman da hobekuntza, eta horrek sendotu egin ditu hazkunde-aurreikuspenak.

Gure erreferentziako eremuei dagokienez, are nabarmenagoa izan da hobekuntza, % 0,5 eta % 1 bitarteko hazkunde-tasak izan baitira lehen hiruhilekoan bi eremu geografikoetan. Ekonomiaren susperraldi zikliko horrek aukera emango digu joan den abenduan egindako estimazioak gorantz zuzentzeko. Bestalde, Europako Banku Zentralak inflazioa kudeatzeko etapa berriari ekin zion joan den ekainean, interes-tasak % 0,25 jaitsita. Lehen jaitsiera hori seinale bat besterik ez bada ere, urtearen bigarren erdialderako espero diren beste bi jaitsierek eta aurreikusten diren laurek nolabaiteko bultzada emango diote hazkundeari, eta datorren urtean antzemango da batez ere.

Eta horixe da, funtsean, 2024rako aurreikusten dugun egoera. Zehazki, txosten hau amaitzean dugun informazioa kontuan hartuta, % 2,4ko hazkunde-tasa espero dugu Estatu osorako eta % 2,1ekoa Nafarroako Foru Erkidegorako. Datu horiek nabarmen egin dute gora pasa den abenduan eman genituenekin alderatuta.

Nolanahi ere, esan beharra dago inflazioaren aurkako borroka ezin dugula inola ere amaitutzat eman oraindik, nahiz eta beheranzko bide luzea egin dugun dagoeneko. Euroguneko urtetik urterako indize harmonizatua % 2,6koa izan da maiatzean, eta azpiko inflazioa, % 2,9koa. Datu horiek ikusita, luze joko du, itxuraz, Europako Banku Zentralak lortu nahi duen % 2ko helburua erdiesteak. Hori dela eta, Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak arretaz jarraituko dio soldaten bilakaerari, euroguneko ekonomiaren barne-indarra ikusita, eta unean uneko datuetan oinarrituko ditu erabakiak.